



NAKBAREN 77. URTEURRENAREN ADIERAZPENA

PALESTINAREN ALDE MUGI: DENOK MADRILERA!

Gaur egun, Israelen proiektu kolonialista inoiz baino garbiagoa da: 1948an Nakba gertatu zen; bortxazko desplazamendua, 750.000 palestinar baino gehiagoren garbiketa etnikoa. Injustizia historiko horrek gaur egun arte jarraitzen du. Gaur egun sionismoa maskararik gabe agertzen da, eta Palestinan duela 77 urte hasi zen garbiketa etnikoa osatu nahi du. Israelgo erregimen koloniala, gerra krimenen eta gizateriaren aurkako krimenen bidez eraiki zen, eta horiei esker mantentzen ari da oraindik.

19 hilabete dira genozidioaren azken fasea hasi zenetik, Gazako Zerrendaren kontra basakeri osoarekin. 19 hilabete horietan Israelek krimen deskribaezinak egin ditu; heriotza, suntsipena, minik latzena ekarri ditu, eta dena erabateko zigorgabetasunez. 19 hilabete horietan, Israelek eskolak, ospitaleak, errefuxiatu-eremuak, egoitza-guneak, elizak, meskitak eta konboi humanitarioak bonbardatu ditu, mendealdearen laguntzarekin. Inoiz ez dira hainbeste kazetari hil, inoiz ez dira NBEko hainbeste langile hil, inoiz ez dira hainbeste osasun-langile hil hain lurralde txikian. Eta demokraziaren txapeldunen konplizitatea eta itxurakeria ez dira inoiz hain eskandalagarriak izan.

Zisjordanian eta ekialdeko Jerusalemen, kolonoen erasoak gero eta gordinagoak dira; herri osoak indarrez hustu dituzte, eta preso palestinarrek tortura eta terrore kontakizunak besterik ez dute. Eraso horiek Israelgo okupazio-indarren babesarekin egiten dira; permisua emateaz gain, sarritan lagundu egiten dute erasoetan.

Diasporan, zortzi milioi palestinar baino gehiagok debekatuta dute euren lurretara itzultzea. Eta Israelgo hiritartasuna duten palestinarren kontra ere, 60 lege baino gehiago badaude diskriminatu egiten dutenak.

Errealitatea ez da inoiz hain argia izan: Israel zapalkuntza globaleko sistemaren isla da bere osagai guztiekin: inperialismoa, kolonialismoa, arrazakeria, zisheteropatriarkatua eta kapitalismoa. Horren aurrean, bi aukera baino ez daude: Palestinako herriaren genozidioaren konplize izatea, edo bestela justizian eta berdintasunean oinarritutako mundu bat defendatzea. AEBk funtsezko zeregina du Israeli ematen dion babes ekonomiko eta militarrekin; haren inperialismoak mundu osoko nazioen aurkako zapalkuntza eta lapurreta ahalbidetzen ditu. EB ere erabateko konplizea da. Ez du Israelekin egindako Elkartze Akordioa hautsi; ez du Netanyahu atxilotu, Europara lehen aldiz etorri denean Nazioarteko Zigor Auzitegiaren atxilotze aginduaren ondoren.

Israelek jaramonik ez dio egin nazioarteko zuzenbideari, ezta su-eten guztiei ere, apartheid krimenen eta genozidio krimenen erantzule da, eta Palestina ilegalki okupatzen du.

Herritarren indarrez, Gobernuak konplizitatearen amaierarako urrats batzuk ematen behartu dugu, lotsatiak eta eskasak badira ere. **Horrek erakusten digu egiten duguna eraginkorra dela, eta presioa mantendu eta handitu behar dugula.** Espainiako Estatuak genozidioa zuzenean laguntzen jarraitzen du gaur egun, eta hori ezin dugu onartu. Horren erakusgarri dira Algeciras, Valencia edo Cartagenako portuetatik armamentu-materiala daramaten ontziak igarotzea, Zaragozako aireportutik material militarra bidaltzea eta



Espainiako gobernua Israelgo armak erostea. Horrek guztiak erakusten digu Espainiako Estatua oraindik ere konplize dela; material militarra Israelera eramateko pasabidea da, nahiz eta trafiko-mota hori eten egingo zela iragarri izana.

Hilabetez hilabete, mobilizazioa etengabea eta nekaezina izan da. RESCOPek 15 asteburutan deituta, tokiko deialdi guztiez gain, hiri eta auzo bakoitzeko kaleak bete ditugu. Mobilizazio historikoa izaten ari da; ez da inoiz hainbeste manifestazio eta elkarretaratze egon hainbeste udalerritan (100 baino gehiago ere deialdi berean!) elkartasun internazionalistako kausa batengatik. Behin eta berriz erantzukizunak nabarmendu ditugu: Espainiako Gobernuarena, Europar Batasunarena, gobernu autonomiko eta nazionalena, udalena eta sarraskiarekin irabaziak dituzten enpresena. Baina orain pauso bat haratago eman beharra dago.

Horregatik, Palestinako Okupazioaren aurkako Sare Solidarioak (RESCOP), lehen aldiz, **erakunde, kolektibo eta pertsona solidario guziei hots egiten diegu maiatzaren 10ean, 12:00etan, Madrilan elkartzeko**, Gobernuak herri-indarra nabari dezan, eta gure eskakizunak argi eta garbi entzun ditzan:

- **Israelgo Estatuarekin harreman diplomatiko, ekonomiko, kultural, instituzional eta militar guzien berehala amaitu.**
- **Israeli erabateko enbargoa: armena, teknologia militarrena, zaintzarena; baita lizentzien amaiera eta armamentua Espainiako Estatutik pasatzearen debekua ere.**
- **Nazioarteko Justizia Gortean Hegoafrikak genozidioagatik aurkeztutako salaketei babes irmoa ematea, eta Nazioarteko Zigor Gortean irekitako prozesuari babes aktiboa ematea.**
- **Mozal Legea indargabetu eta Palestinarekiko elkartasuna jazarpena amaitu.**
- **Errefuxiatu palestinarren itzulera-eskubidea aitortu eta indarrean jarri, Nazio Batuen Biltzarraren 194 Ebazpenak adierazten duen bezala.**

Israelek duen zigorgabetasuna, konplizitate-sarearekin bakarrik da posible: zigortzen ez duten gobernua, irabaziak dituzten enpresak, zuritzen dituzten komunikabideak, isiltzen diren erakundeak. Sare hori apurtzea guztion ardura dugu.

Elkartasun ekintza bakoitzak bere balioa du. Mobilizazio bakoitzak herri-boterea pilatzen du. Eta indar horrek aldaketa eragiten ari da: baliogabetutako arma-kontratuak, bertan behera utzitako kontzertuak, baliogabetutako merkataritza-akordioak, genozidioa gaitzesten duten artistak, unibertsitateak eta udalerrak.

Konplizitate guztia amaitu arte ez gara geldituko.



Horregatik, maiatzaren 10ean Madril bete egingen dugu. Basakeria gehiagorik nagusitzen utzi nahi ez dugulako. **Herri palestinarrak eutsi egiten diolako**, eta geuk ere harekin eutsi egiten diogulako. Palestinako herriaren borroka, humanitatearen borroka delako.

Madril uholdea izanen da: Genozidioa gelditu! Armen enbargo osoa! Harremanak hautsi, orain! Israeli boikota, Palestina askea

www.rescop.org



DESKOLONIZAZIOA ETA ITZULERARAKO ESKUBIDEAREN ALDEKO MANIFESTAZIO BATERATUA



MANIFESTACIÓN POLA DESCOLONIZACIÓN E O DEREITO AO RETORNO



MANIFESTACIÓ PER A LA DESCOLONITZACIÓ I EL DRET AL RETORN



MANIFESTACIÓN POR LA DESCOLONIZACIÓN Y EL DERECHO AL RETORNO